

B

BARREN



“Klausura sasoi berrietara egokitu behar da”

Maria Jesus Azpiazu, klaratarren ama nagusia

Badakizu Elgoibarren Ingeniaritza egin daitekeela lan eta ikasiz ?

Ate irekiak:

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!

Uztailak 2, atsaldeko 19:00etan



IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar
Tfnoa. 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es www.imh.es/ingeniaritza-eskola

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

Ume kontuak

Uda hemen dago, nahiz eta eguraldiagatik ez izan. Ume-ek oporrak hartzen dute, beste batzuk oporrak prestatzen, herrian zinea hasten da plazan, eta mintxetako kanpoko igerilekuak zabaldu dira. Gaur egun, Euskal Herriko herri askotan ekitaldi kultural eta ludikoak martxan hasiko dira: jazz kontzertuak, rock jaialdiak, musika klasikoko kontzertuak, herrietako jaiak eta milaka pertsona ibiltzen dira horren inguruan.

Nire ume garaian, gure udako jolasak bizikletan ibiltzea (batzuetan lasterketak egiten genituen herriko kaleetan zehar, zirkuitu antolatuei izenak emanez: *la pera*, *la manzana*...), plazan baloiarekin edota kalean egin zitekeen edozein dibertimendu ekintzak egiten (atxutximaika, *cinturon* jolasa, botebote, etab...). Nahikoa zen koadrila elkartzea jolas horiek aurrrera eramateko; ordu dezente pasatzen genituen ederki igarotzen genuen. Noizean behin, hondartzara juten ginen ere arratsalde pasa. Gure nerabetasunean lehenengo koadrila-oporraldia Urbiako zelaira kanpinean joatea izan zen. Motxila janariz bete eta bost-sei egun igarotzera. Oroitzapen onak ditut garai hoietatik.

Gaurko umeek, aldiz, ekintza antolatuak dituzte: udalekuak, kirol uda kanpaina eta kanporako txangoak. Edo nahikoa daukate play station edo nintendo ateratzea orduak pasatzeko. Jolas orduak, gaur egun, nahiko berdintsuak dira:

bizikletan ikusten ditut kalean, eta euren jolas motak ere asmatzen dute. Ez ditut kontrolatzen geurekin berdintasunik duten edo ez jakiteko, baina normalena da, urteetan zehar, jolas horiek aldatzea.

Eta nolakoak izango dira 25 urte barruko udak? Agian neurek ez dute aldaketa handirik izango, noizbehinka hondartzara, herritik bueltatxo bat edota eguneko bi-daia bat. Agian klimak ez dakigu norantz joko duen edo gu zer egoera ekonomiko, fisiko edo psikikotan egongo garen, baina seguru aldaketak antzeman-go ditugula. Agian eza-gutuko dugu Deba erreka garbi, hondartzarekin? Zeinek jakin.

Jokin Martinez



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Eta nolakoak izango dira 25 urte barruko udak?
Agian neurek ez dute aldaketa handirik izango"**

Ekainak 28: gay, lesbiana eta transexualen nazioarteko eguna

Nola erreakzionatuko zenuke etxekoren batek homosexuala dela esango balizu?

Herritarren erantzunak
BIDEO INKESTAN



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



“Gauzak
lasaiago
hartzen
ikasi dut”

JUAN MARI EGUREN

BIHOTZKOAK JOTA BIZIRAUTEA LORTU ZUEN

2007ko urriaren 7an berriro jaio zela dio. Ez da harritzekoa. Egun horretan bihotzekoak jo eta zorte ikaragarria izan zuen lehenengo momentutik. Bere lagun Eulogiok lehen laguntzak eskaini zizkion eta Gurutze Gorriari deitu zion. Gero helikopteroa etorri zen Mintxetara eta Donostiako Poliklinikara eraman zuten. Aldagai guztiek bat egin zuten bera bizirik ateratzeko. BARREnek protagonistarekin gogoratu nahi izan du gertatutakoa, nahiz eta Juan Mari Eguren ez den ezertaz ere gogoratzen. “Nire emazte Nievesek etorri behar luke hitz egitera”, esan digu, umorerik falta gabe. Bizitza eta heriotzaren arteko muga oso estua izan daitekeela frogatzen du egurenen esperientziak.

Elkarizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Zelan zaude osasun aldetik?

Primeran. Pilulak hartzen ditut kolesterola eta tentsioa kontrolatzeko. Jubilatuta nago.

Zenbat urte zenituen bihotzekoak jo ziintue- nean?

56rekin pasatu zitzaidan.

Zertan zenbiltzan lanean?

Pasatu zitzaidana ez zen izan kirola egiteagatik. Bizitza guztian egin izan dut kirola. Palan astean bi aldiz jokatzen nuen. Kristoren estresa nuen lanean. Proiektista nintzen, eta proiektu latzak eta konplexuak nituen eskuartean. Tentsio handiko lana zen.

Estresa duen jende asko ez da ohartzen es- tresa duenik...

Bai. Hori pasatu aurretik minbera nabaritzen nuen bihotz inguruan.

Hortaz, bihotzekoa pasatu aurretik mina sen- titzen zenuen bihotz inguruan?

Bai, min hori pasatuko zelakoan nengoen. Bularreko angina zen. Arteria estutu egiten da.

Proba bidez jakin zitekeen?

Medikura joan beharko nintzatekeen sasoi hartan.

Familian aurrekaririk bazegoen?

Ez, batere ere ez. Hau lanagatik da. Garbi daukat. Orain jubilatuta goizez bakarrik joaten naiz lanera baina beste erritmo batean. Ardurarik gabeko lana da. Arduraduna beste bat da eta nik lagundu egiten diot. Gero arratsaldeak libre ditut paseatzeko.

**“Berotzeko moduko
zeozer pasatzen
zaidanean, lasai
egoteko esaten
diot nire buruari”**

Gauzak lasaiago hartzen ikasi duzu?

Bai, zeharo. Txipa zeharo aldatuta daukat. Berotzeko moduko zeozer ikusten dudanean, trankil egoteko esaten diot nire buruari. Nire bizimodua oso lasaia da.

Zure burua lehen baino gehiago zaintzen duzu orain?

Lehen ere bai. Bizitza guztian zaindu dut nire burua: ez erre, ez edan... Kirola a tope egiten nuen. Orain gatza ez dut proba-

tzen. Baina ohituta nago. Gustura jaten dut.

Palan jokatzea faltan botatzen duzu?

Izugarri. Irailean joan behar dut txeko bat egitera, eta galdetzeko asmoa dut. Beldurra daukat, baita mendira joateko ere: aldapak...

Psikologikoa ere bada, ezta?

Lehenengo proba egin zidatenean berri-berri bezala nengoela esan zidaten. Ezer ere pasatu izan ez balitzait bezala nengoela esan zidan medikuak. Albiste ona da, baina beldurra daukat.

Urriaren 7an jaio zinen berriro?

Bai. Errosario egunean. Ez dut sekula ahaztuko. Joan zen astean egin nituen 57, baina kilometro-kontagailua egun horretan jarri nuen martxan berriro.

Zer pasatu zitzaizun akorduan duzu?

Ez, ez naiz ezertaz ere gogoratzen. Handik hiru bat egunera esnatu nintzen. “Non nago?”, galdetzen nuen.

Konortea berreskuratzean, tunel bateko argia ikusten duela diote batzuek. Zuk zerbait sumatu zenuen?

Ez. Egun horretan pasatutako guztia ez dut gogoratzen. Lagunak oso kehati nengoela esaten du, partidari ere arraro samar nengoela. Dutxan ere gaizki nengoe-la dio. Beti bezala ez nengoela jabetu zen. Dutzatik irten eta bertako aulkian etzanda egon nintzen. Gauza arraroa. Domekako partida bukatu, dutxatu eta ikastolako frontoia ixten nuen bakar-bakarrik. Beste-ak lehenago irtetzen ziren.

Bakarrik egon zintezkeen egun hartan...

Bai, hark sumatu zuen zerbait berezia pasatzen zitzaidala, eta gelditu egin zen.

Eulogio zure laguna ondoan izan zenuen...

Polizia da bera, eta beharrezko laguntzak egiten badaki. Autoan sartu aurretik itxaron zuen. Zerraldo lurrera erori nintzen. 112 telefono zenbakira deitu zuen. Gurutze Gorria etorri zen Mintxetara, eta ikusi zuten larria zela.

Noiz etorri zen helikopteroa?

Gurutze Gorrikoak Elgoibarren zeuden eta euren furgonetan etorri ziren. Segituan Donostiara eraman behar nindutela esan zuten. Egokiena helikopteroa zen.

Zergatik Poliklinikara eta ez Mendaroko Ospitalera?

Itxuraz egoera larria zen, eta leku aproposena zen Poliklinika. Harrezkeroz, gutu-

nak ere handik iristen zaizkit. Kardiologia zentro onena han dago.

Nondik etorri zen helikopteroa?

Loiutik edo Sondikatik. Loiutik uste dut. Momentuan etorri zen. Hemendik Donostiara ere ordu laurden batean iritsi ginen. Eskerrak horri.

Denak bat egin zuen zure alde...

Bai, denak. Anbulantzia ere momentuan etorri zen. Donostiako bidean, helikopteroan, bihotza lau aldiz geratu zen. Herrian zabaldu zen zurrumurrua hilda nengoela.

Benetan?

Kilometroen eguna zen Bergaran, eta han zabaldu zen albiste. Baina helikopteroetan ez dituzte hildakoak eramaten.

**“Egun horretan
pasatako guztia
ez dut gogoratzen.
Baina sekulako
zortea izan nuen”**

Familiak lasaitzeko aukera izan zuen gero?

Gero lasaitu ziren. UVI- ZBUk ikusi ninduten. Eurekin hitz egiten omen nuen. Ez dut gogoratzen. Hiru egunetan sedatuta-edo egon nintzen. Laugarren egunean bai, plantara jaitsi nindutenean esnatu nintzen.

Familiarrak ere lasaitu egiten dira gaixoarekin berba egiten dutenean...

Bai, gaixoa ikusi eta hitz egitean, eta gaixoak hitz egiten badie, hobeto.

Ez zara ezertaz ere gogoratzen.

Gaur ere elkarriketa egitera etorri aurretik, andreak esan dit: “Ez zara ezertaz ohartu ere egin-eta. Hobe da ni joatea”, esan du.

Umore ona ez da falta...

Oso garrantzitsua da.

Eta itxura ona duzu...

Nire burua probatzeko gogoa dut. Baina beldurra dut.

Paseoak egiten dituzu.

Bai, kilometroak eta kilometroak egiten ditut.

Zorteduna izan zara?

Egun horretan zorte itzela izan nuen alde guztietatik. Bestela, kaput. Lurpean.

Iragana etorkizunari begira



Zerbitzuak

Herri lanak, elektrizitatea eta trenea orain dela ehun urte

Zerbitzu sektorean Alzola auzo nabarmendu zen orain dela ehun urte. 1946 urtean Etxe Zuria baserria zegoen tokian bainuetxea eraiki zutenetik, gero eta ospe handiagoa hartu zuen *Madril txikiak*.

Horrez gain, trenbideak asko lagundu zion garapen ekonomikoari. 1987ko irailean Elgoibar Bilborekin lotuta gelditu zen, Zaldibar-Elgoibar zatia inauguratu zen-eta. Romualdo Garciak, San Pedro Fabrikako ugazaba eta Durango-Zumarraga trenbide linearen akziodunak, hamaika ahalegin egin zituen lehenbailehen trenea bere fabrikararaino iristeko. Baita lortu ere.

Elektrizitatea

Elektraindarra 1893eko San Bartolome egunean inauguratu zen Elgoibarren. Hasieran kaleetan petrolio lanparak ordezkatu zituen poliki-poliki, eta gerora udaletxean, parrokian, eskolan eta etxe partikularretan sartzzen joan zen, arazo bat baino gehiago izan ohi baitzuten hornitzaileek, batez ere udan eta errekek ur gutxi zeramatenean. Fabrika batzuek (Barrutia, Arbillaga, Anitua, Beloki, Treku...) euren turbina jarri zuten herriko argiaren menpean egon gabe. Argindarraren hedapenak berebiziko bultzada eman zion ekonomiarari, eta bizi kalitatearen hobetzea ere ekarri zuen. Hurrengo urteko martxoaren 20an telefonoa jarri zen.

Ekonomiaren martxa ona XX. mendeko lehen urteetan izan zen, lehen hamabostaldira arte. Etxegintzak gora egin zuen, eta tailerretan lanez gainezka ibili ziren.

Trenak asko lagundu zion garapen ekonomikoari

Fabrika batzuek euren turbina jarri zuten herriko argiaren menpe egon gabe

Ekonomiaren martxa ona XX. mendeko lehen urteetan izan zen, lehen hamabostaldira arte.



Alzolako bainuetxea.



Merkataritza

**Brigida Iriondo
Txankakua elkarteko
lehendakaria**

“Garrantzitsua da jendeari atentzio pertsonalizatua ematea”

Eguenetan dendetako artikuluak kalean saltzen hasi zarete.

Denda bakoitzak ikusten du zer atera. Promozio eta deskontuak daude orain, ostegunero. Ostegunero-ostegunero egiten dugun lehen aldia izan da.

Zer moduz hartu du jendeak?

Oso ondo. Batzuk esan ziguten gehiagotan egiteko. Orain ere merkatua izaten da ostegunetan, eta jendea gehiago ibiltzeko antolatzen dugu ekimen hori. Bestela kaletik beste leku batera joaten da jendea, eta gu, merkatarioak, kalean gaude.

Merkatarioak igarriko zenuten merkadilloa Sigmara eramatearen ondorioa, ezta?

Hasieratik ikusi zen. Ikusten da jende gutxiago ibiltzen dela kalean. Lehen, merkadilloa zentruan egotean, jende gehiago ikusten zen kalean. Jende gehiago irteten bada kalera, kontsumitu ere gehiago egiten du. Kontsumo aldaketa igarri zen dendetan eta tabernetan-eta ere.

Jendea Elgoibartik kanpora joaten da erosketak egitera?

Zentro komertzialek gehiago irekitzen dute eta orduan jendeak aukera handiagoa dauka, baina jendea oraindik ere kalean asko ibiltzen da, eta hemengo dendetan ere oraindik erosten du. Atentzioa ere ezberdina da. Dendetako atentzioa pertsonalagoa da eta jendeak hori bilatzen du, dendetara joateko ohitura duelako. Askotan nik badakit zer krema erabiltzen duen hona etortzen den bezeroak, ezagutu egiten ditudalako. Hori jendeak asko baloratzen du.

Konfiantza, azken batean...

Bai. Beste lekuetan ez daukate. Hemen zure iritzia bilatzen dute. Konfiantza izaten da. Zugan konfiantza badu, nahiago du hona etortzea. Zentro komertzialetara bagoaz, dena apaletan dago, eta hartu eta kajerari ez diogu galdetuko. Hori da ezberdintasunik handiena.

Zer egin daiteke bertako merkataritza sendotzeko?

Gauzak denen artean egiteko da elkarte. Hori da garrantzitsuena. Denen artean indar handiagoa dugu bakoitzak bere aldetik baino. Promozioak egin ditugu. Horrez gain, Txankakua-ren txartela ere atera dugu, deskontuekin: portzentaje hori guk ere ordaintzen dugu (banketxeak ateratzen du, baina gure kontura izaten da, eta deskontuak geuk egiten dizkiogu jendeari), eta puntuak hartzen dituzte, oparitxoak izaten dira... Txartela ideia oso ona izan, da eta jende askok erabiltzen du Txankakuako txartela, gero eta gehiagok gainera.

Elgoibarren merkataritza bizirik dagoela esan daiteke?

Bai, badago. Jendeari atentzio pertsonala ematea garrantzitsua dela uste dut.

Gaur egungo krisiaren eragina igartzen duzue?

Bai, baina normala da. Hipotekak pare bat puntu igo dira, zergak igo egin dira eta soldatak puntu bat baino ez dira igo. Nabaritzen da, baina denean. Dena igotzen bada gehiago eta soldatak ez badira igotzen, denok gaude berdin. Balantza batean jarrita, horrela ezin da.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

PFEZ, errenta zerga gero eta injustuagoa

Errentaren gaineko zergak (PFEZk) aberastasuna hobeto banatzeko balio beharko luke, diru sarrera txikienak dauzkan jendearen mesedetan. Horretarako, zerga progresiboa izan beharko luke, hau da, irabazien arabera. Gehien irabazten dutenek gehiago ordainduko balute, diru hori berriro banatuko litzateke denon artean, zerbitzu sozial, sozio-komunitario, hezkuntza, osasun eta abarretara bideraturik.

Erreformaz erreforma, zerga horren bidez gero eta diru gutxiago batzen da eta, gainera, bere "progresibitatea" galduz joan da. Hegoaldean deklaraturakotako errenten %80 baino gehiago lan errentak dira, hau da, langileok pagatzen dugu ondasunak birbanatzeko balio beharko lukeen zerga hau, benetan aberasten direnen orde. Horrekin batera, PFEZren eskalatik kanpo geratzen dira kapitalaren errentak (kapital inbiliariora, interesak, dibidendoak edota irabazi patrimonialak). Horiengandik ehuneko finkoa ordaintzen da, alegia, asko edo gutxi irabazita, beti kopuru berbera: Nafarroan %15 eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan %18. Kopuru horiek askoz baxuagoak dira langileok ordaintzen dugun errenta zerga baino (Nafarroan %13tik %42ra, eta Baskongadetan %23tik %45era, diru sarreraren arabera).

Hego Euskal Herriko langileok 18.000 euro inguru deklaratzeko ditugun batez beste. Enpresariak eta profesio-

nalek, ordea, 12.000 euro inguru baino ez dute deklaritzen. Errenta zergak gain, beste zerga guztietan erreparatzen badugu, Hego Euskal Herrian Europan baino 10 puntu gutxiagoko presio fiskala gauzatzen dela ikusten dugu. Horrekin lotuta, babes sozialean ere (langabezian, etxebizitzan, jubilatzean...) ia 10 puntu gutxiagoko inbertsioa egiten da. Hau da, enpresaburuek gero eta gehiago defraudatzen dute eta, gainera, zerga murrizketak ordaintzen dituzte dauzkaten beste diru sarrengatik (kapital inbiliariora, dibidendoak e.a.).

Langileok pairatzen dugun presio fiskalik handiena, eta trukean gero eta babes sozial gutxiago daukagu. Mundu guztiarentzako 400 euroen neurriak ez du kontuan hartzen pertsona bakoitzak zenbat irabazten duen. Hobeto esanda, 400 euro horiek ez dira mundu guztiarentzat, gutxien irabazten duten langileek eta errenta aitortzen egiten ez dutenek, ezkutuko ekonomian dabiltzanek edo pentsirik baxuenak jasotzen dutenek ez dutelako zentimorik ere ikusiko.

Ez du balioko ekonomia bultzatzeko, kopuru nimiñoa delako eta, gainera, gutxien irabazten dutenak ez dira neurri horretaz baliatuko. PFEZ taulak ez datoz bat benetako inflazioarekin; hori dela eta, praktikan zergak igoko dira eta horrek kaltetuko ditu lan errentak, pentsioak barne.

Fandango eta arin-arin ikastarua

Edozein erromerixatan trikitixa jotzen debenean, korrotik urrundu biharra eukitzen dozu, dantzan ez dakizulako? Inbidiaz begiratzen diezu fandango eta arin-ariña dantzatzeko debenei? Ba haxe da zure aukeria!

Elgoibarko Gazte Asanbladak hile honetan fandango eta arin-arin ikastarua emango ditu dantza eskolako irakasleekin. Ze egun eta ordutan izango dan ondiok erabakitze dago, beraz, erne ibilli eta animau, merezi dau eta! Ia Txiki Eguneko erromerixako korrua zabaltzeko kapaz geran danon artian!

Elgoibarko Gazte Asanblada

LAB

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Arkaitz Irureta

Aspaldixan, hiztegi militarra ziharo onartuta jaukagu; enpresa munduan erabiltzen dok:

taktikak, estrategiak... Mendixan ere bai, kanpo-basia, tontorrera atakia... egun, oso barneratuta dittugun hitzok halaber.


Zer esanik ez alor politikan, hainbat biolentzia sufritzen jaittuagu. ETaren indarkeriaz gain, hainbeste polizia eta militarren bortizkeria mantentzen jauagu, txintik esan gabe: berdin gorri, berde nahiz urdin, ikustia besterik ez dagok beraien jarrera.

Antimilitaristengandik, gizarte desmilitarizatu batian sinisten daban jendiandik, ikasi najaituan militarismuaren ondorixuak: pistola eskuetan, Darwinismuaren definizio kutriena egitten juek, selekzio naturala barik indartsuenaren legia, baiña ez genetikoki onena danarena.

“Nere ustez, biolentzia guztiak dittuk bukatu biharrekuak”

Terrorismo hitzak betetzen jaittuk komunikabidien ahauk, baiña bahakixan, Txino, terrorismo hitza 1789. urteko iraultza frantsesian erabili zabela lehen aldikoz? Disidentzia kartzelaratu eta erailtzen zebe-nian, berme gabeko epaiketen ondoren, estatu terrorismuaz mintzatzeko izan zuan.

Batere arrazionala ez dan alde bateko biolentziaren kondena modan dagok. Nere aburuz, biolentzia guztiak dittuk bukatu biharrekuak. Biolentziez berbetan, terrorista batzuri medallak emanaz, bakia billatzen debenak kartzelara sartuta, alde bakarreko biktimei omenaldixak egiñaz eta gaixo larrixak kartzelan lagata, tamalez, biolentziok elkar indartzeko besterik ez dabela balixoko konbentziduta nagok.



Sugar Etxaniz

Hiztegi militarraz gauza askorik ez jakixat, hire antzera nik ere soldaduzkara jun biharrik ez najuan izan zorionez, baina egixa dok bai azken urtietan asko erabiltzen diran hitz mordo bat garai batian mundu militarrian bakarrik erabiltzen ziralara. Arropa militarra ere gero ehizarako, eta orain kalian ere ikusi leikek batzuen soiñian. Teknologia ere eremu militarre-rako sortu eta dauaz orain egurero xamar edozein herritarrek erabiltzen dittuan hamaika tramankulu.

Baiña, bueno, hori gutxienekua dok, min gehixago ematen jiaik urtero-urtero zenbat diru kentzen diguen gogoz kontra militarrentzako.

“Miñ ematen jiaik urtero zenbat diru kentzen diguen gogoz kontra militarrentzako”

Terrorismo hitza berriz oso guria dala jirudik, Euskal Herrixan eta hemendik kanpora ere hamaika jendek lotzen jok herri hau terrorismo hitzak. Begitantzen jatak umeren bat ere jai-xoko dala gizaldi honetan izen horrekin, gerua baldintzatatuta izango dabana... hala ere, biktima izatetik urrun, ahotsik gabe bizitzera kondenatua.

Bide batez, aipamen gazi-gozua: bi elgoibartar aittatu nahi jaittuat, bat gure artian dalako berriz (ongi etorri Juan Mari); eta bestia egoera txarrian Donostiako ospitalian dagualako: aupa Mikel, animo, besarkada beruena eta zu ere laster osatu; gure artian nahi zaittugulako.



Elgoibarko Udala



EUZKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Inflazioa %3,7an dago, interes-tasak gora egin du eta euriborrak ere bai. Krisi hitza entzuten hasi gara.

Zertan eragin dizu krisi ekonomikoak?



Ana Rosa Oñaederra

43 urte, dendaria

Gero eta zailagoa da hilabete bukaerara iristea, eta gainera egoerak okerrera egingo du. Interes tasek gora egingo dute, eta dirurik ez baduzu, ez duzu erosten. Guztia kate bat da.



Felix Garcia-Abad

67 urte, pentsionista

Ez dut igarri. Emaztea da etxeko administraria. Ez diot horren inguruan galdetu. Bakarrik bizi gara eta biok ko-bratzen dugu pentsioren bat. Ez dugu hipotekarik. Zortea izan dugu.



Adelina Carrillo

45 urte, etxekoandrea

Asko igarri dut: erosterakoan, alokairua ordaintzerakoan... Lehen nire herrialdera diru gehiago bidal nezakeen, orain ez. Azken bost hilabeteetatik igarri dut dena garestiago dagoela.



Maria Dolores España

26 urte, etxe garbitzailea

Erosterakoan. Lehen diru berarekin gauza gehiago erosi zitekeen. Bereziki lehengaiak igo dira. Egunero produktu berri bat garestitzen den bitartean soldatek ez dute gora egiten.

10^{eko}
TXIKIAN



NIKO
OSORO

Jubilatua

1. Herriko txokorik gustukuena?

Plaza Handia da nire herriko txokorik gustukuena.

2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Nik uste dut herria nahiko ondo dagoela eta denetik duela. Etxe asko egiten ari dira. Gazte asko daude, eta etxeak behar dira. Babes ofizialeko etxebizitza gehiago falta dira akaso.

3. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Gauza asko. Aparkaleku gehiago egingo nituzkte, eta parke gehiago umeentzako.

4. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?

Bai, euskara asko entzuten da gazteen artean eta hori pozgarria da. Ondo moldatzen gara euskaraz herrian.

5. Zein da elgoibartarrik famosoena?

Benantzio apaiza.

6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Ez dut uste. Leku gehiago balego, hobeto. Kiroldegia txiki geratu da eta gazte asko dago kirola egin nahian.

7. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Bai, eliza daukagu, frontoian goaildean... Denetik dago.

8. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez dut uste. Ni behintzat ez, ur hotza ez zait gustatzen, ezta uretan bainatzea ere. Nahiago dut mendia. Neskatoa nintzenean bainatzen ginen Deba ibaian.

9. Joango zinateke beste herriren batera bizitzera? Nora?

Ez. Elgoibar asko maite dut. Hemen jaio nintzen eta okerrik ez bada, hemen hilko naiz. Ezkondu ere Elgoibarren egin nintzen, eta hemen bizi izan naiz beti.

10. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garaio publikoa?

Bai, denetik dago. Trena ordutik ordura dago. Autobusak gutxiago daude.



San Roke auzoko parke berrian ez dituzte farolak pizten: "Azken bi asteotan, gutxi gora behera, Mekanika atzeko parke berriko farolak ez dituzte pizten. Gaeuz oso iluna da ingurune hori, eta iruditzen zaigu argia piztea beharrezkoa dela. Orain, gainera, umeak oportetan daude, eta gaeuz ateratzea gustatzen zaie. Parkean argirik gabe ibiltzea arriskutsua dela iruditzen zaigu, beraz, farolak pizteko eskatu nahi dugu".



Aitzolako Jai Batzordeko lagunek eskerrak eman nahi dizkiete jaietan lagundu dieten guztiei: "Mila esker Aitzolako San Juan jaiak antolatzen lan egin duten guztiei, eta baita ere, bertan izan zaretenoi. Giro polita izan da jaietan, eta zorionez, dena ondo atera da. Bide batez, gogoratu nahi dugu otarraren zozketako zenbaki irabazlea 668 izan dela. Eskerrik asko!". Era berean, altzolarrek jai batzordea txalotu nahi dute.



Bankoa eskubaloi taldeko jokalarien gurasoek Jon Sanchez Rovirari eskerrak eman nahi dizkiete: "Eskubaloi denboraldia amaitzeko guraso eta jokalarien arteko norgehiagoka antolatu genuen. Ondoren bazkaria egin genuen, denboraldiko sariak eta trofeoak banatu zituzten, eta oso gustura ibili ginen. Bide batez, Jon Sanchez Rovira entrenatzaileari eskerrak eman nahi dizkiogu, gure semeekin egiten duen lanagatik. Mila esker eta jarraitu horrela!".






Ainara eta Chusemiren partez, eskerrik asko Elgoibar BH Insitututoko DBH4. mailako ikasleei: "Taldea ederra, ezta? Elgoibarko Institututoko DBHko 4. mailako ikasleei sei egun eman ditugu Mallorcan, ikasketa bidaian. Irribarreak, gau luzeak eta loaldi motzak, tinba, lagunartea, bilerak, erabakiak, ligeak, tragoak, eguzkia, sorpresak, kemena... Ikasitakoa asko izan delako, Chusemi eta Ainararen partez, eskerrik asko guztioi eta nahi duen arte".

Zuen kezak, gaiterak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com 943-74 41 12



Tel: 943 74 10 11

-  IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
-  ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
-  IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

Hileko azken zapatuko feria indarberritzeko lehenengo saiakera egingo dute bihar

Ganadua, baserriko produktuak eta herri kirolak izango dira

Udalak, Debemen elkarteak eta herriko hainbat baserritarek indarrak batu dituzte, hileko azken zapatuko feriarri bultzada emateko. Hainbat bilera egin ondoren, bihar, zapatua, egingo dute feria indarberritzeko lehenengo saiakera.

Hiru helburu

Feria indarberritzeko planak hiru helburu nagusi izango ditu: batetik, nekazal mundua eta herritarren arteko lotura berreskuratu nahi dute; bestetik nekazal produktuen salmenta sustatzen saiatuko dira; eta azkenik, feria berrindartu nahi dute, hau da, erreferente bihurtuko den egun osoko feria egin nahi dute.

Biharko feriarekin, beraz, aro berri bat hasiko da, eta antolatzaileek hiru eremu bereiztu dituzte:

Lehenengoa, ganadua, baserriko materiala eta burdineriako produktuak, orain arteko moduan, Plaza Txikian egongo dira, 9:00etatik aurrera. Ganadu saltaileak 11:00etarako jarriko dituzte salgai abereak.



Bigarren eremua, nekazal produktuekin postuak jarriko dituzte Nafarroa plazan. Ondorioz, autoak ezingo dira Errosario kalera sartu. Gainera, trikitilariak egongo dira feria girotzeko.

Hirugarrena herri kirolentzako izango da. Lagun Artea taldeak egingo du lehenengo saioa, 17:00etan, eta aurreantzean hileru antolatuko du erakustaldiren bat.

1782an sortu zen feria

Elgoibarren azken zapatuan nekazaritza eta abeltzaintza feria egiteko ohitura 1782an sortu zen. Laster hartu zuen indarra, eta inguruko herrietan erreferente bihurtu zen. Azken urteotan, ordea, gainbehera ezagutu du, eta nekazari eta abeltzain gutxi etorri izan dira. Garai batean izandako indarra berreskuratzea da helburu nagusia.

Herriko hainbat lagun eta taldek Mikel Ibañez libre lagatzeko eskatu dute



Mikel Ibañez preso elgoibartarrak minbizia duela-eta, aske lagatzeko eskatu dute hainbat herritar eta taldek. Ondorengoek sinatu dute agiria: Haritz Euskal Dantzari Taldea, AEK euskaltegia, CD Elgoibarko Haundi taldea, Ongarri argazki elkarte, Errotatxo, Elgoibarko LAB, Taupada antzerki taldea, Ekekei antzerki taldea, Elgoibarko Etxerat, Elgoibarko Segi, Elgoibarko Gazte Asanblada, K104 musika taldea, Elgoibar espeleologia taldea, Markel Bergara futbolaria, Iñigo Arriola futbolari ohia, Unai Arrieta eskubaloia jokalaria, Iker Leonardo kirolaria, Uxue Alberdi bertsolaria, Jaime Martinez arkularia, Ion Gurrutxaga musikaria, J. Agustin Alonso tabernaria, Maitane Alberdi irakaslea, Iñaki Laskurain irakaslea, Andoni Segundo irakaslea, Ikastolako 20 irakasle, Ainhoa Mendibil eta Miren Ibarzabal Ikasle Abertzaleak.

Lekua **San Lorentzo erreka**



Herri Eskolako ikasleek San Lorentzo-ko erreka garbitu zuten joan zen astean. Agenda 21 egitasmoaren baitan energiaren gaia lantzeaz gainera, hondakinak eta horien gestioa ere aztertu dituzte. Erreka ertzetan plastiko poltsa asko zeudela ikusirik, ekin zioten garbiketa lanari. Katiuskak eta eskularruak jantzita, zikinkeria mordera atera zuten.

Zenbakia **258.100**

Elgoibarko Udalak 258.100 euro erabiliko ditu herriko barandak berritzeko. Orain dela zenbait hilabete hasi zituzten herriko barandauak berritzeko lanak, eta dagoeneko, txoko batzutan baranda berriak ikusi ditzakegu. Datozen hilabeteetan Urasandi, San Roke eta Erretxindiko barandak berrituko dituzte, eta baita Txankakua zubikoa ere. Elgoibarren 3,5 kilometro baranda daude guztira, eta N634 errepidetik ikusten diren txokoetan apaingarri bereziak jarriko dituzte.

Irudia **Orkatz bat Deba ibaian**

Ikusmina sortu zuen eguazten eguardian Deba ibaian aske zebilen orkatzak. Jausoro Plaza inguruan ikusi zuten ume batzuek, eta xaxatu ondoren, King Kong aldera joan zen orkatza, beldurturik. Inguratu zen aditu batek esan zuen, orkatza bakean lagatzea zela onena, eta etorritako bide beretik joango zela. Zerbidoen familiako ugaztun artiodaktiloa da orkatza, 80 zentimetroko altuera eta 25 kg-ko pisua izan dezakeena. Ilaje arre-gorrixka du udan eta grisaxka neguan, eta bi edo hiru puntako adar txikiak ditu. Buztana oso txikia da. Europako ipar eta erdialdean bizi da, baina azkenaldian hemen inguruko basoetan ikusten hasiak gara. Inguruko fauna ugaltzen ari da.



Praileaitz ezagutzeko kanpaina

Praileaitz, Euskal Herriko historiaurreko muina izenpean, Praileaitz aztarnategia ezagutzeko kanpaina antolatu dute Praileaitzeko Lagunek. Uztailaren 1ean ekingo diote kanpainari erakusketa batekin. Kultur Etxean izango da 19:00etan, eta bertan, Diego Mendoza biologoak hitzaldia eskainiko du. Uztailaren 11ra arte luzatuko dira ekintzak.

Bertso-udalekuak Aubixan

15-18 urtera arteko bertsozaleek afizioaz gozatu eta Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako lagunak egiteko aukera izango dute. Izan ere, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak bertso udalekua antolatu du, Aubixa baserrian. Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak dirulaguntzak emango dizkie egonaldi horietan parte hartu nahi duten ikasleei. Udalak matrikularen %40 ordaintzeko laguntza emango du. Informazio gehiago, 943 74 43 66 telefonoan.

Lau lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

Elgoibarko Udalak bi udaltzain, administrazio orokorreko teknikari bat eta kultura teknikari bat hautatzeko deialdia egin du. Interesatuek ekainaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkitu dezakete informazio guztia.

Defentsa pertsonala

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, defentsa pertsonaleko ikastaroa izango da uztailaren 2an, 9an eta 16an, egunean bi orduz. Pello Plazak, arte martzialean adituak, eskainiko du ikastaroa. Hamalau urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Zubibai elkarteko kideentzat doan izango da, eta gainontzekoek hamar euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko: 652 714 062 telefonora deitu daiteke.

NAHIDON?

Klaratarrak

Maria Jesus Azpiazu, ama nagusia

“Herritarrei zabaltzea da etorkizunari aurre egiteko bideetako bat”

Santa Klara auzoan Asisko Frantzisko eta Klararen jarraitzaileak bizi dira komentu xume eta eder batean. Natur ingurune paregabe horretan, garbiketa-lanetatik eta otoitz egitetik bizi dira hamar moja. Kontenplatariak dira klaratarrak. Etorkizunari begira dituzten erronkak eta euren bizimodua izan ditugu hizpide Maria Jesus Azpiazu ama nagusiarekin. Gainera, Foru Aldundiak egunero probeta batean jasotako euria neurtzeagatik saritu berri du.

Andoni Iturbe



Elgoibarko klaratarrek urteko 365 egunetan ordutegi berari eusten diote. “Errutina ez bihurtzeko, naturari erreparatu egiten diogu eta gure barrurra begiratzen dugu, egunero egiten duguna berria izateko”, adierazi digu Maria Jesus Azpiazu ama nagusiak. Hitzok bikain erakusten dute klaratarren bizimodua: xumetasuna eta naturarekiko errespetua. Komentuaren ingurune berde eta zainduarekin gozatu egiten dute bertan bizi diren hamar mojek. “Klara eta Asisko Frantzisko oso maitean ditut. Niretzat Jainko bizitza ederra da, harridura eta maitasun handia sortzen dizkit, eta hortik datorkit izadi osoarenganako maitasuna”, adierazi du.

Bizitza xumea egiten dute komentuan bizi diren hamar mojek

Goizeko 6:00etan jaikitzen dira egunero, eta eguna otoitz egiten eta lanean pasatzen dute: etxea eta erropa garbitzen... Diziplina hori oso lagungarria izan zaio Azpiazuri, egunero probeta batean bildu den ura neurtzeko. 1987. urtetik egiten du. “Lan txikia da”, esaten du umiltasunez. Baina bere eta Gipuzkoako beste hainbat lagunen ekarpenarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak datur baliagarriak lortzen ditu. Diploma baten bidez saritu

zuten, baina erabaki zuen Donostiara ez joatea. “Joan nahi izan banuen, joango nintzatekeen”, esan du. Klaratar kontenplatariak dira klausurako mojak baino. “Klausurak, berez, ez gaitu kontenplatari egiten, nahiz eta askotan lagungarri egiten zaidan”, aitortzen du. Berez klausurako komentua bada ere, urteen poderioz kontzeptu hori ere sasoi berrietara egokitu dute. Aspaldi kendu zituzten burdinsareak. 1984. urtean komentuko inork ez zituen erabiltzen. “Klausurako bizitza oso gogorra zen. Gurasoak hiltzen baziren, ezin ziren irten, eta senideak etortzen baziren, burdinsare horren bitartez hitz egiten zuten haiekin”, gogoratzen du Azpiazuk. Eurak ere irteten dira kanpora. Lehen medikua eurengana joaten zen bezala, orain eurak joaten dira osasun zentrora.

Klarisa irekiak

Dena den, familia arteko ospakizunetara joateko ohiturarik ez dute. “Gurasoak gaixo daudenean joaten gara, baina pozaldietara ez”, dio. Elgoibarko klaratarren izaera irekiagoa da besteekin alderatuz. Moja irekia eta abegikorra da Azpiazuk. Komentuko ahizpekin zapatuero egiten du bilera euren bizitza elkarrekin aztertzeko. Behin ahizpa bati ama hil zitzaion eta ez

zen hileta-elizkizunera joan. “Gaizki pasatu zuen. Gero, handik urte batzuetara, senide bat hil eta familia bisitatu zuen. Bakea eman zion. Baina badaude beste komentueta ni bezala pentsatzen ez duten ama nagusiak”, azaltzen du. “Klausurak sasoi berrietara gehiago egokitu beharko lukeela uste dut”, dio Azpiazuk.

Portugalgo moja bat ere badute. Juliak ez zuen klausurako botorik egin. Azpiazuren ustez, kontenplatari izateko bideak honi eutsi beharko lioke: Jesusen Jainkoarekin topo egiteari eta bizitza bete-betea bizitzeari.

Julia egunero Aiestia-San Migelera joaten da paseoan. “Juliak esaten du San Migelera joaten den bitartean, gozatu egiten duela: txorien abestiak, parajeak...”, gaineratzen du. Azpiazuaren esanetan, euren komentua irekita dute otoitz, gogoeta edo terapiak egitera datozenentzat. “Jendeak kontenplaziorako beharra sentitzen badu, gure espazio ederrekin gozatu lezake. Hori da nire asmoa. Herritarrei zabaltzea da etorkizunari aurre egiteko daukagun bideetako bat”, ondorioztatzen du.

Astean bi bider hara joaten dira Alkoholiko Anonimoko kideak, eta astean behin, *Renovación carismática del Espíritu Santo* izeneko otoitz taldea.



“Herritarrekin hartu-eman oso ona daukagu eta maitatuak sentitzen gara”

Labandaria txiki bat dute eta herriko zazpi elkarte gastronomikorentzat garbiketa lanak egiten dituzte. Horrez gain, etxe partikularrek ekartzen dizkieten arropa ere hartzen dute. “Herriarekin hartu-eman oso ona dugu. Gure herria maite dugu eta maitatuak sentitzen gara”, dio Azpiazuk. Euren otoitzean parte hartzea ere joaten dira herritar batzuk. “Gazteren batek edo bestek ere arratsaldero gure elizan ordubeteko otoitz isila egiten du. Benetan ederra”, adierazi du.

Komentuko etorkizunari buruz hausnartzean, ez du uste Hego Ameriketatik edo Indiatik etorri litekeen irtenbidea. Beste komentu batzuetan gero eta gehiago dira jatorri horietako ahizpak. “Mojak handik ekartzea ez dut uste soluzio ona denik. Handik ekarri eta klausurako komentu batean jartzea gogorra izan behar du”, argudiatu du.

Julia portugaldarra hemeretzi urte zituenetik bizi da Elgoibarren. Bera hurbildu zitzaion. Pianoa jotzen ikasten saiatu da, eta Azpiazuren kontzientzia ekologikoa bereganatu du, baratza zainduz eta konpostajea eginez.

ADINA

93 urte ditu ahizpa zaharrenak. Organu-jole aparta da. Gazteenak, Juliak, 42 ditu. Urrestillan jaio zen Azpiazuk 66 ditu.

INTERNET

1524. urteko *Cantores* liburuarekin batera, teknologia berriek ere lekua dute. Albistegiak ere ikusten dituzte, eta abestu egiten dute.



Gure berbak

Aditza (22): aditz gehiago

Beti bezela, zutabeko bigarren adibide-sailla da gogora ekarri nahi ditudan aditzak dakarrena, zenbaittek (gazte-jendiak batez ere) erderatik edo euskera batutik biharrik gabe hartzen dituenen orde proposatu nahi ditudutenak; Elgoibarren eta inguruetan erabiltzeko proposatzen ditudu, eta ez dot esan nahi honekin euskera batukuak (beste esparru batian) erabili ezin leikezanik, ez eta gitxiagorik ere.

- *Txingor zaparrada bat botatzen dizu, eta tomate danak izurraulta uzten dizuz.*

- *San Juanetako sua prestatzen ari ziranian, zaparrada edarra egin eta busti-busti eginda amaittu zebeu gizajuak.*

- *Amamak egindako tarta horrekin, ume guztiak amaittu debe atzaparrak txupatzen.*

- *Basarrixaren alde onen artian, la-saïttasuna azpimarratuko neuke.*

Hona, horren onduan, beste aukera batzuk, sarritan hobiak diranak:

- *Txingor zaparrada bat botatzen dizu, eta tomate danak **hondauta lagatzen** dizuz.*

- *San Juanetako sua prestatzen ari ziranian, zaparrada edarra egin eta **blai eginda (mela-mela eginda)** amaittu zebeu gizajuak.*

- *Amamak egindako tarta horrekin, ume guztiak amaittu debe atzaparrak **miezten**.*

- *Basarrixaren alde onen artian, la-saïttasuna **nabarmenduko** neuke.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1944

Aste honetako erretratu zaharra Frantzisko Isastik laga digu. 1944. urtean Altolako San Juan jaietan ateratako argazkia da, eta egokia iruditu zaigu aste honetan kaleratzea. Ikusten dugun bezala, koadrila horretan ez zen umorerik falta. Giro onean eta irrifartsu atera zuten argazkia.

Gogora ditzagun erretratuko lagunak:

Goian, ezkerretik eskumara: Purita Iriondo, Rosa Lariz, Milagros Iriondo, ezezaguna, Mari Tere Zubia, Josepa Lariz.

Bigarren ilaran: Domingo Arozena (†), Manoli Lariz, Herminia Anton (†), Mari Tere Landa, Laura Etxabe (†), Kesentzia Kareaga, Inazio Oñederra (†).

Makurtuta: Antonio Landa (Altolako alkate ohia) eta Frantzisko Isasti.



I. URTEURRENA



2007ko uztaillaren 4an hil zen, **Jose San Martin Totorikagüena** jaunaren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, ekainak 28, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



TRATAMENDUAK:

- ✓ Hanken afekzioen tratamendua.
- ✓ Neurria egindako plantilak.
- ✓ Hanka diabetikoen zainketa.
- ✓ Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

ORDUTEGIA:

09:30 - 13:30 / 15:30 - 19:30

Tlf.: 943 74 16 45

San Frantzisko kalea, 20 behea



PODOLOGIA

Diplomaduna: IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

*Behar duenarentzat
etxez-etxeko zerbitzua*



TEXTIL HOGAR · KOLTXOI DENDA LAGUNAK



EGURREZKO KANAPEA

2 kolore aukeran:wenguea edo
gerezindo kolorekoa



1'35m X 1,90m

485€ tik
aurrera

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com

Ekaitzak ez zuen San Juan sua emendatu Altzolan

Idotorbe-San Pedro auzoak hartuko du auzoko jaien lekukoa asteburu honetan

San Juan bezperako ekaitzak ez zuen sua emendatu, ez eta altzolarren jai giroa zapuztu. Izan ere, jai giro onean amaitu ziren Altzolako jaiak eguazteneko txapliguekin. Jaien lekukoa Idotorbe-San Pedro auzoak hartuko du asteburu honetan (egitaraua, agendan).



Euriaren ondorioz, gasolina behar izan zuten sua pizteko.



Ur festan bikain pasatu zuten umeek; beroari aurre egiteko plan bikaina izan zen.



Elgoibarko gazteek ere ospatu zuten San Juan gaua.



Aurten ere indartsu daudela erakutsi dute altzolarrek.



Karta jokorako zaletasuna ere badago Altzolan. Zortzi bikote aritu ziren musean.

Txankakuak hileko lehenengo osteguneko sustapena

Uztailak 3

Hileko lehenengo ostegunean, Txankakua dende sustapen desberdinak kaleratuko dituzte. Produktuak prezio onean lortzeko aukera izango duzu!



Doru laguntzarik



Industria, Merkataritza eta Turismoa Sektorea

Udaleku irekiak eskainiko ditu Zubibai elkarteak uztailean Altzola auzoko umeentzako

Bizilagun gazteen arteko giroa piztu eta euren arteko harremanak sendotu nahi dituzte

Zubibai elkarteak Altzola auzoko umeentzako udaleku irekiak eskainiko ditu uztailean, bitik sei urtera arteko neska-mutilentzako. Auzoko bizilagun gazteen arteko giroa piztu eta euren arteko harremanak sendotu nahi dituzte proposamen berriaren bidez.

Astelehenetik barixakura arteko Udalekuak izango dira. Martitzenean hasiko dira, uztailearen 1ean. Hilaren 23ra arte Altzolako neska eta mutilek parte hartuko dute. Jarduerak umeen adinaren arabera moldatuko dituzte. Ekintzak, berriz, euskaraz izango dira, baina umeren bat mugatuta egonez gero, komunikazioa elebiduna izango da.

Eskaintza zabala prestatu dute Zubibaiakoek: tailerrak (zetazko bolatxoaren marrazkia, kareetak, malabare pilotak, kami-seta tindaketa, gatz poteak, lore sikuen



koadroa, e.a); ezagutza jokoak ("laranja eta limoia", eserlekuak, e.a); herri kirolak

(lokotx bilketa, txingak, sokatira, e.a) edo joko erraldoiak (puzlearen jokoa).

Bertsio akustikoak eskainiko ditu Bikustik bikoteak Iratxo tabernan gaur, barixakua



Patxi Zabaletak eta Ion Gurrutxagak bat egin dute Bikustik proiektua martxan jartzeko. Izenak adierazten duen moduan, proiektu akustikoa da, bertsio akustikoen proiektua. Bikote elgoibartar honek apirilean eskaini zuen bere estreinako kontzertua Zumaian; gaur gauekoa (barixakua) hirugarrena izango da eta Iratxo tabernan eskainiko dute.

Patxi Zabaletak gitarra nagusia eta koroak egiten ditu eta Ion Gurrutxaga ahots nagusia eta gitarra laguntzailea da. Biak Arima Beltzako taldekideak izan ziren.

Bikote elgoibartarrak The Beatles, Creedence Clearwater Revival, Led Zeppelin, Queen edota Chris Robinsonen bertsioak eskaintzen dituzte euren emanaldietan.

Gaur gaueko kontzertua 22.30etan hasiko da, Iratxo tabernan.

Kiribil oporretan

Uda dela eta, Kiribilka programak oporrak hartu ditu. Aurten Elgoibarko familietan euskararekiko jarrera positiboak eta euskal giroa bultzatzeko zortzi saio egin dituzte, euskal mitologiaren inguruan. Antolatzaileak pozik daude lanarekin eta jendearen erantzunarekin. Saio bakoitzera 150-200 ume inguru hurbildu dira. Horrez gain, kultur ikuskizunak ere antolatu dituzte. Irailean bueltatuko da Kiribil barraskiloa, hil horren 12, 19 eta 26an saioak izango baitira. Urriaren 3rako beste ikuskizun bat antolatu dute.

Aire libreko zinea, gaurtik

Aire libreko zine emanaldia gaur hasiko da, barixakua. Lehenengo saio honetan *Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal* filma eskainiko dute. Bihar, berriz, *Fuera de carta* emango dute. 700 eserleku egongo dira Plaza Handian. Emanaldiak 22:30etan hasiko dira.

ANE URAIN

Eskubaloi jokalaria

Bere taldekideek ez zuten zalantzarik. Bazekiten aurten ere Espainiako selekzioak hamabost urteko Ane Urain deituko zuela. Bere entrenatzaileak eman zion albistea iaz bezala. Bigarren aldia da Sanloko jokalaria hautatzen dutena. Sorian bilduko da gainontzeko jokalariekin uztailaren 1etik 8ra bitartean. Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak egiten duen sari banaketan, aurtengo neska kadeten artean jokalaria aipagarriena izendatu du.

“Asko ikasten da Espainiako selekzioaren kontzentrazioan”

Bigarren aldiak ilusio handiagoa egin dizu?

Ez nuen espero. Pasa den urtean infantila nintzen eta deialdi horretarako aukera nuela uste nuen, baina bigarrengorako ez nuen garbi ikusten.

Zenbat euskalduni egin diete dei?

Niri eta Ermuko bati.

Euskal Herrian harrobi ona dago?

Bai, gure adin tartean maila ona dagoela esaten dute.

Zer falta zaizue aurrera jarraitzeko?

Entrenatzen jarraitzea. Konstantzia.

Zuk jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Deialdi honek jarraitzeko motibatu egiten du.

Zergatik daude herrian neska jokalaria hobeak?

Mutil guztiak futboleko jokatzeko hasten dira, eta futboleko hasten ez badira eskubaloiara jotzen dute.

Tradizioa badagoelako hasi zinen, orduan, eskubaloiari jokatzeko?

Nire ahizpa ere ibili zen, eta bere partidak ikustera joaten nintzen. Gus-tatu egin zitzaidan.

Zertan hobetu duzu azken urteotan?

Asko ikasi nuen pasa den urtean Logroño-ko deialdian. Orain gehiago



“Sire ketake bu!!” da Sanlokoen gerra oihua.

dakit, eta hobea naiz.

Zertan zara hobea?

Defenditzen hobea naiz, eta baloia errazago egiten dut lapurretan.

Zein postutan jokatzeko duzu?

Zentral eta muturreko postuan.

Zein desberdintasun dago bi postu horien artean?

Zentralak dena kontrolatuta eduki behar du. Berak agintzen du alde batetik bestera, eta muturrean dabilenak adi ibili behar du eta jokoa sartzen jakin.

Uztailko deialdiaren ondoren, zer egin behar duzu?

Soriako deialdian gogor entrenatzeko asmoa dut. Kadete promesa naiz. Kadete naizenean eta datorren urtean deitzen banaute, selekzioarekin atzerira joan ninteke: Italiara... Iraila partean hogeita bat lagun hartzen dituzte taldea osatzeko.

Datorren urtea noiz helduko zain zaude hortaz...

Bai, polita izango litzateke atzerrian ere jokatzeko. Ilusioa egingo lizateke.

Kirolaren inguruko ikasketak egiteko asmorik duzu?

Letrak eta zientziak gustatzen zaizkit. Ez dakit zer ikasiko dudana. Momentuz eskubaloiari afizioa da.

Jose Luis Insausti CD Elgoibarko presidente izatera itzuliko da

116.000 euroko ondarea du kirol elkarteak

Azkenean Jose Luis Insausti izango da CD Elgoibarko presidente berria. Lehen ere postu horretan ibili zen hiru urtez. Zuzendaritza taldeak eskatzen zuen lekukoa eskarmentu handiko presidente ohi batek hartu du, kirol elkarteak behar dituen erronkei aurre egin nahian.

Kultur Etxean egin zen ezohiko batzarrean bildutako bazkideek ontzat eman zuten hautagaitza. Aurrez taldearen balantzea egin zuen Miguel Larizek zuzendutako taldeak. Eman-dako datuen arabera CD Elgoibarrek 115.928,73 eurotako ondarea du, Realak zor dizkion 12.000 euroak barne.

Jagoba, Haundiko entrenatzaile

Jagoba Arrasate izango da Haundiko entrenatzailea datorren denboraldian.



Arrasate Haundiko jokalaria izan zen 2004/2005 eta 2005/2006 denboraldietan eta golegile paregabea zela frogatu zuen. Bere golei esker, Hirugarren Mailara sartu ahal izan zen talde elgoibartarra. Baina ordurako beste talde batzuren eskaintzak jaso zituen. Portugaleten eta Amorebietan jokatu ondoren, Haundiko jokalaria entrenatu eta motibatatu beharko ditu Berriatuako gazteak.

Eskubaloi taldeek giro paregabean amaitu dute denboraldia



Sanlo EKT taldeak 160 lagun bildu zituen denboraldia amaitzeko afarian. Rafa Alvarez presidentek lorpenak goraiatu zituen. IMH Elgoibarrek Gipuzkoako Federazioak emandako Kiroltasun saria izan da azkena.

Quebrantahuesosen hamabost elgoibartarrek parte hartu dute

Hamabost elgoibartarrek eta sei mendaroarren amaitu zuten afizionatuen mailako nazioarteko proba eza-guna. Horietatik bostek, gainera, zazpi orduren azpitik egin zuten. Quebrantahuesos 205 kilometroko bizikleta proba da, mendate gogorrez josita (Somport, Marie Blanc, Portalet...). Aragoian, Sabiñanigon irten eta amaitzen da Quebrantahuesos proba. Aurtengo edizioan partaidetza marka hobetu dute: 8.000 lagunek eman zuten izena, eta azkenean 7.209 irten ziren.

laz hogeitxirrindulari elgoibartarrek parte hartu zuten eta duela bi urte 27 izan ziren proba amaitu zuten herritarrak.

Igor Elizburuk, berriz, Treparriscos proban parte hartu zuen.



Kirol argazki lehiaketa martxan da

Kirol Argazkien Lehiaketa martxan jarri dute Udal Kirol Patronatuak eta Gazteria Sailak Ongarri argazkilari elkartearen laguntzarekin. Uztailearen 18ra arte aurkeztu daitezke lanak Olaizaga Kiroldegian. Sari Bana-keta abuztuaren 23an egingo dute eta aurkeztutako argazkiekin erakus-keta antolatuko dute Kultur etxeko sotoan. Hiru maila egongo dira: herriko saria, 35 urtera artekoa (bi sari) eta sari orokorra (beste bi sari). (Aran-tza) eta 616 210 078 (Juan)

LANA

ESKAERA

Gizonezko arduratsua, garbiketa lanak orduka edo publizitatea banatzeko prest.

☎ 622 625 812

• Mutila, edozer lan egiteko prest.

☎ 638 494 501

• Emakumezko arduratsua, garbiketa lanak egiteko edo nagusiak orduka zaintzeko prest.

☎ 622 634 860

• Emakumea, lanerako prest: umeak edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Eskarmentukoa eta autoa.

☎ 606 642 284

• LH eta DBHko partikularrak emateko prest, euskaraz zein gaztelaniaz. Uztailan goizez. ☎ 688 664 727

• Neska, lanerako prest.

☎ 659 194 189

• Emakumea, interna lan egiteko prest.

☎ 618 175 692

• Neska, arratsalde lan egiteko prest. Garbiketarak, nagusiak zaindu...

☎ 696 246 962

• Neska, gauaz lan egiteko prest. Nagusiak zainduz edo sukalde laguntzaile moduan.

☎ 699 576 107

• Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest.

☎ 696 284 351/943 53 01 32

• Klase partikularrak ematen ditut. LH, DBH, LOGSE eta zikloak. Ekainean eta uztailean.

☎ 653 717 972

• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko, zerbitzari aritzeko edo garbiketa lanetarako prest.

☎ 680 250 527

• Neska, gauetan tabernetan edo garbiketa enpresa batean lan egiteko prest.

☎ 686 234 612

• Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 626 876 186

• Neska, orduka astegunetan edo lan ordu osoa asteburuan egiteko prest.

☎ 646 821 678

• Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, sukaldean laguntzaile aritzeko edo garbiketa lanetarako prest.

☎ 608 047 720

• Neska, zerbitzari aritzeko, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest.

☎ 675 709 452

• Neska, egun osoko lanean nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.

☎ 671 476 869

ESKAITZA

• Zerbitzaria behar da Txariduna hotelarako. Kontratua jardunaldi osorako. Esperientzia beharrezkoa.

☎ 943 74 87 78

• Neska edo emakumezko euskalduna behar da irailetik aurrera orduka umea zaintzeko.

☎ 669 339 529

• Zerbitzaria behar da astebururako eta jai egunetarako Mendarón.

☎ 943 030 150

• Sukaldaria behar da.

☎ 943 74 31 96

• Eskarmentua duen sukaldaria behar da. ☎ 943 74 45 78

• Pertsona arduratsua behar da umeak uztailetik aurrera zaintzeko.

☎ 605 585 057

• Bitxiak, barruko jantziak eta kosmetika produktuak saltzeko pertsona behar da. Soldata ona. Ez da esperientziarik behar. ☎ 607824892

• Pertsona bat behar da gizon nagusia zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Abuztuaren 8tik 18ra. Gizarte Segurantzaren. Soldata ona.

☎ 639 931 772 (arratsaldeetan)

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

• Pisua salgai San Roke auzoan. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Gasa, garajea eta trastelekua. ☎ 696 301 694

• Etxe berria salgai Mendarón. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, egongela handia. Erdi ipinita eta modu onean.

☎ 652 757 240

• Etxe salgai erdigunetan. 3 logela, 2 egongela, sukalde, 2 komun. Berritua, dena kanpoaldera. Ganbara eta igogailuarekin. Eguzkitsua. ☎ 606 707 915

• Etxe salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariekin salgai.

☎ 628 115 677

GARAJEAK

• Garajea saldu edo alokatzen da Santa Ana 2an (Ametsa parean).

☎ 615 787 857

• Urasandin garaje plaza salgai.

☎ 656 718 761

• Garajea salgai Urasandi inguruan.

12m² + 12 m² ☎ 620 856 768

(arratsaldeetan 17:00etatik 21:00etara)

MOTORRA

• Citroen C4 1.6 HDI. 60.000 km². 92 zaldi. 10.000 euro. Negoziagarri. Egoera onean

☎ 650 840 620

Seat Leon TDI beltza salgai

• 105 zaldi, eguzkirako goialdea, Kit aerodinamikoa. 15.000 km. 17.000 euro. Transferitua. ☎ 647 626 693

• Motorra salgai Rieju MRX.

☎ 943 74 41 41

• R-Trafic preparatua salgai. 9 urte. 260.000 kilometro. 1.900 diesel, 4.500 euro. Negoziatzeko moduan.

☎ 653 011 043

BESTELAKOAK

• Labea eta Mepamsa eta plaka bitrozeramikoa Aspes markakoa salgai. Berririk. ☎ 646 434 293

• Gortinak, altzariak, alfonbrak, oherako izarak eta elektrogailuak behar dira.

☎ 676 444 171

• Zapatilari lotzen zaizkien gupilak ahaztu nituen domekan, ekainak 8, Sigmako frontoian. Beltzak dira, argiekin.

☎ 600 300 682

• The Police-n kontzerturako sarrera salgai prezio berean. 72 euro. Uztailearen 4ean (BBK Bilbao Live).


☎ 626 146 849

• Baratza konpartitu nahi nuke. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, baita simaurra eta lan egiteko erremintak ere.

☎ 655 723 678 / 943 74 39 19

• Errepidekoa bizikleta errepidekoa salgai. Giant, hiru plater, T. 48. 275 euro.

☎ 658 758 458



BEKAK

BERDINTASUNA

Gipuzkoako Foru Aldundia. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jardueretarako gipuzkoako foru aldundiaren diru-laguntzak.

Epea: Uztaillak 18.

IKASLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia. 2008-2009 ikasturtean Akitaniako unibertsitatearen batean ikasketak egiten dituzten gipuzkoar gazteen-tzako Gipuzkoako Foru Aldundiaren bekak.

Epea: Abuztuak 31.

LEHIAKETA

KARTELAK

Hondarribiko Udalaren Kultura Zerbitzuak herriko jaiak iragartzeko antolatuta du kartel-lehiaketa.

Epea: uztaillak 8.

LANA

ARKITEKTO TEKNIKOA

Bergarako Udalean Arkitekto tekniko lanpostu bat aldi baterako betetzeko oposizio-lehiaketa.

Epea: ekainak 30.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Asteleheneretik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Aitana**, 7 urte egingo dituzulako. Familiaren eta bereziki Eneko eta Heleneren partez.



• Zorionak, **txapeldun**. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Maitane**, etzi urteak egingo dituzulako. Familiaren eta bereziki Ion-nen eta Janireren partez.



• Zorionak, **Eñaut**, zortzi urte egin dituzu-eta. Familiaren eta bereziki Haritzen partez.




• Zorionak, **Marek**, zure bosgarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Gorane**, atzo bi urtetxo egin zenituelako. Familiaren eta bereziki Ikerren partez.



• Zorionak, **Elene**, bost urte egin dituzu-eta. Egun alaia pasa familiaren eta bereziki Josebaren partez.



• Zorionak, **laukote**, ekainean urtebete egin duzuelako, muxu handi bana ikastolako laguntxoaren partetik!



• Zorionak hurrengo astelehenean! Ondo pasa eguna eta lau muxu potolo etxeokoen partez.

OSPAKIZUNAK 1958an jaiotakoak



1958. urtean jaiotako lagunek egun ederra ospatu zuten ekainaren 16an. Bartzordeak eskerrak eman nahi dizkie "gure urteurrena ospatzera etorri zareten guztioi".



• Zorionak, **Naiara eta Iker**, zuen egunean. Familia guztiaren partez muxu bat.



• Zorionak, **Gorane eta Amanda**. Familiaren partez.

BARREN

astekarian lan egiteko

KAZETARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua izatea (edo ikaslea) edo eskarmentua sektorean.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Irailean lanean hasteko.

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan-dedikazioa.
- Urtebeterako lan-kontratua.
- Urteko soldata gordina: 21.700 euro.

Curriculumak entregatzeko azken eguna:

UZTAILAK 7

Informazio gehiago eta curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte,
Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)
E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

OKINDEGIA

29 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 27 Zabaleta
- 28 Garitaonaindia
- 29 Garitaonaindia
- 30 Etxeberria (Santa Ana)
- 1 Fernandez
- 2 Yudego
- 3 Zabaleta
- 4 Etxeberria (Errosario)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta


Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.neten



musika

27 barixakua

22:30 Bikustik taldearen kontzertua

Patxi Zabaleta eta Ion Gurrutzagak kontzertua eskainiko du Iratxo tabernan.

erakusketak

1 martitzena

19:00 Praileaitz ezagutuz Erakusketaren aurkezpena eta Diego Mendoza biologoaren hitzaldia. Kultur Etxean.

hitzaldiak

4 barixakua

19:00 Aralarren hitzaldia "Ezkerretik independentziara". Jon Abril eta Asier Lertxundik hitzaldia eskainiko dute. Kultur Etxean

22:00 Bideo Forum Haizea emakume taldeak antolatuta, *Porque lo digo yo* pelikula. Hizlaria Eskarne Larrinaga. Kultur Etxean.

azoka

28 zapatua

9:00 Hileroko azken zapatuko azoka Abereak eta nekazal produktuak jarriko dira salgai.
17:00 Herri kirolak Leku Ederren.

besteak

27 barixakua

19:00 Diploma banaketa Elgoibar BH Institutoko ikasleek kurtso amaierako diploma jasoko dute. Herriko Antzokian.

1 martitzena

10:00 Udalekuak Altzolan Zubibaik antolatuta, bitik hamalau urtera arteko gazteentzako ekintzak.

2 eguaztena

19:00 Ate irekiak Ingeniaritza Eskolako ate irekien eguna. IMHn.

3 eguena

15:00 eta 19:00 Gaztelekuko bilera Ikasturte amaierako balantze bileragurasoentzako.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 27

Topagunea 17:00-20:00

ZAPATUA 28

San Lorentzora irteera 17:15

DOMEKA 29

Gazte zinema: "27 ordu" 17:30

MARTITZENA 1

Hondartzara irteera: 16:00

EGUAZTENA 2

San Rokera irteera: 17:15

EGUENA 3

Futbolin eta ping-pong txapelketak: 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 27

Senda Vivara irteera
8:00-21:00

ASTELEHENA 30

Filma 17:00-19:00

MARTITZENA 1

Sukaldaritza tailerra 17:00-19:00

EGUAZTENA 2

Azpeitiko igerilekuetara irteera
14:45-20:30

EGUENA 3

Eskulanak 17:00-19:00

«Indiana Jones 4»
(Plaza Handian)

27, barixakua:
22:30

«Fuera de carta»
(Plaza Handian)

28, zapatua:
22:30

Indiana Jones 4. AEB, 2008.
Zuzendaria: Steven Spielberg.
Aktoreak: Harrison Ford, Cate Blanchett, Shia LaBeouf, Ray Winstone, Karen Allen, Jim Broadbent. Iraupena 124 min.

1957a, Gerra Hotzaren garaia. Irina Spalkok gidatutako espioi sobietar batzuk Kristalezko Buruezurraren bila dabilta. Indiana Jones ere pieza horren bila ibiliko da Latinoamerikan.

SAN PEDROKO JAIK

27 BARIXAKUA

19:00 Jaien hasiera

Kanpai jotze eta txapliguekin.

21:00 Bertso afaria

Sebastian Lizaso, Jesus Mari Irazu eta Uxue Alberdirekin. Tarteka, Baltzola anaiak eta ondoren, erromeria.

28 ZAPATUA

16:00 Motokros proba

Manu Alvarezen omenez motokros proba.

23:00 Gaupasa

Kupela musika taldearekin.

00:00 Bolo txapelketa

1. saria: 150 euro
2. saria: 100 euro
3. saria: 75 euro

4. saria: 50 euro

5. saria: 30 euro

6. saria: sorpresa

Goizaldean, txokolate jana

29 DOMEKA

11:00 Meza nagusia

Ondoren, hamaiketakoa

Saizar, Sahatzu eta Armuetak eskainita.

13:00 Herri kirolak

Lagun Artea herri kirol taldearekin.

14:00 Auzotarren bazkaria

17:30 Idi denak

- Okina

- Matxinbenta

- Urduliz

1. saria: 900 euro

2. saria: 850 euro

3. saria: 800 euro



Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

Zerikasi

IKASTAROAK

Uda gaztea Altzolan

Norentzat: Altzolako umeentzat

Hizkuntza: Elebiduna

Hasiera data: 2008-7-1 / Bukaera data: 2008-7-23

Non: Altzola

Izenemate bukaera: Kontsultatu 635753447 telefonoan

Eskulanak

Norentzat: Interesatu guztientzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2008-7-8 / Bukaera data: 2008-7-10

Non: Eibar

Izenemate bukaera: Plazak bete arte

Binakako pala ikastaroa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera data: 2008-7-1 / Bukaera data: 2008-7-23

Non: Altzola

Izenemate bukaera: Kontsultatzeko

Frantses ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Frantsesa

Hasiera data: 2008-7-1 / Bukaera data: 2008-7-24

Non: Elgoibar

Izenemate bukaera: ekainak 27

Piraguismoa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera data: 2008-7-7 / Bukaera data: 2008-7-13

Non: Deba

Izenemate bukaera: Plazak bete arte

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

zure-azoka

elgoibarrren. **iragarkilaburrak.com**

www.iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71
 943 74 82 71

oinarriak iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com
 943 74 82 71 iragarkilaburrak.com

erregistratu zaitez eta jarri zure iragarkia webgunean:

Gainera, ostiralero paperezko edizioa 100.000aleko zabalakundearekin.

Ekainak 20, 1 zka.

enpresak eta enpresak

norbanakoak

25

gazte gaia

Azterketa sasoiari buru-belarri murgilduta daude Euskal Herriko gazteak. Guztiek ez dute etxean ikastea erabakitzen. Elgoibartar asko Kultur Etxeko sotoan prestatu duten ikasgelan biltzen dira. Bigarren urtea da behin behineko leku hori jartzen dutena. Baina kexak areagotu besterik ez dira egin. Askorentzat Elgoibarrek tamainako liburutegia behar du: ondo intsonorizatutako gela batekin, dokumentazio egokiarekin, ordenagailu gela batekin...

Bigarren urtez prestatu dute behin behineko ikasgela Kultur Etxeko sotoan. Baina herritar asko oraindik ez dira konturatu. Bertara ikastera joaten diren ikasleak ere ez daude gustura. Euren, gainontzeko herrietan pasatzen den bezala, ikasgela aproposa behar dute.

“Lekua bera ez da arazoa, baina ez da soluzioa”, argitu digu erabiltzaile batek. Bere esanetan, argitasun eta tenperatura egokia du ikasteko, baina egoera larriagoa da. Kultur Etxeko sotoa ez dira joaten ikasteko asmoa duten ikasle guztiak. Liburutegi baten faltan, asko etxean geratzen dira. Beste asko ikasgelara joaten dira leku horren premia dutelako.

“Elgoibarrek liburutegi berria behar du: ondo intsonorizatutako gela batekin, dokumentazio egokiarekin, ordenagailu batekin...”, aldarrikatu dute. Debarbarreneko gainontzeko herriek duten antzeko liburutegi bat egitea eskatzen dute.

“Eibarren eta Ermuan liburutegi onak daude. Zergatik ez Elgoibarren?”, diote. Deba herri txikiagoa izan arren, Elgoibar-koak baino liburutegi egokiagoa daukala esan digute.

Ekaineko eta uztaila hasierako azterketak bukatzeko egun gutxi falta dira, baina gero iraillekoak etorriko dira. Ikas-

gela uztailaren 4ra arte egongo da irekita. Eta gero, zer? Egun batzuetan txiki geratu zaie ikasgela. Gainera, zaintzen inor ere ez dela egoten kritikatu dute. Kexatzen diren ikasleek badakite soluzioa ez dela epe laburrean etorriko. Baina jada bi urte egin badute sotoan ikasten, datorren urtean ere egoera errepikatu liteke.

**Zuen kezak, kexak edo
intereseko gaiak
proposatzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com**

Liburutegi berria eskatzen du ikasketa gelan ikasten duen talde batek

Adituen arabera, komenigarria da egunero ikasketetarako ordutegi eta plangintza berari eustea. Modu horretan, ikasleak etekina aterako dio, eta kontzentrazioa handituko du. Lekua ere eroso izan behar dela argitzen dute. Baina liburutegia ez dute egunero irekitzen. Asteburuetan, adibidez, itxita dago. “Gazteok ez dugu asteburuetan ikasten?”, galdetzen dute.

“Ikasgela hau ez dago gaizki, baina behin behineko irtenbidea izan behar luke”, adierazi dute. Iritzi berekoak ziren orain dela urtebete, baina ikasgelak bere horretan jarraitzen du.



SAN PEDRO

J A T E T X E A

jaixak ondo pasau!

SAN PEDRO AUZOA

Tel. 943 740 010

ELGOIBAR

Aurrez enkargatuz gero hobel!



Badatoz San Bartolomeak !!!

Publizitatea jartzeko: 943 74 37 04

Are eta elkartasun handiagoa, **orain bai.**

Babes-sarea inor baztertu gabe abiarazi. Gehien behar gaituztenak zaintzeko tresnak sortu.

Hori da **efektogipuzkoa**.

2007/2011 Kudeaketa Plana



efektogipuzkoa



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >